

UPV/EHU_n IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO
DEIALDIA (2023)
PIFG23/40 "INGENIARITZA KIMIKOA"
Akats zuzenketa

2023ko abenduaren 13an, PIFG23/40 "Ingeniaritza kimikoa" deialdirako erregistratutako eskabideen zerrenda argitaratu zen. Deialdi horretan, Iker Kan jaunaren hautagaitza alde batera utzi zen, ez baitzen ageri eskabidea aurkeztu zuenik, akats baten ondorioz proiektuko ikertzaile nagusiaren izena jarri baitzen, eta ez hautagaiaren izena.

Hautagai horrek eskabidea garaiz eta behar bezala aurkeztu zuela egiaztatu ondoren, urriaren 1eko 39/2015 Legearen (APL) 109.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, akatsa zuzendu behar da, eta, horrenbestez, azkenean onartu eta baztertu diren eskabideen zerrenda argitaratu behar da.

Leioan, 2023ko abenduaren 18an

ATALA IKERKETA DEIALDIAK
Ikerketako Errektoreordetza